

# euskararen politikarako oinarriak



EUSKO JAURLARITZA  
EUSKARAREN AHOLKU-BATZORDEA

AURKIBIDEA

EUSKARAREN POLITIKARAKO  
OINARRIAK



Gasteiz 1983

ARGITALPEN ZERBITZU  
NAGUSIA

EUSKARAREN POLITIKARAKO  
OTARRIAK

© Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia  
ISBN: 84-7542-036-2  
Legezko gordailua: BI 1292/1983  
Euskadin inprimatua  
Edit. Elexpuru, S.A.L. - Zamudio-Bizkaia

## AURKEZPENA

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	7
I. SARRERA .....	11
II. ELEBITASUNAREN ARAZOA .....	17
III. OINARRIZKO KRITERIOLOGIA .....	23
IV. IKERLANAK .....	41

## AURKEZPENA

Orain argitara ematen den txosten hau Euskararen Aholku Batzordeak bere lehen hilabetetan egin-dako lanaren emaitza da. Lan honetan bi puntu izan dira Euskararen Aholku Batzordeak nagusiki aztertu dituenak: bere eginkizuna sortze dekretuak dioenaren barruan zehaztu eta definitu, eta euskara lanetarako oinarrizko irizpideak finkatu.

Orain jendaurrean agertzen den lan hau 1982-ko lehen sei hilabetetan burututakoa da. Urte bete igaro da beraz, harrez geroz. Eta urte bete epe luzea ez bada ere, zenbaitetan nahiko denbora bada giroa zertxobait aldatzeko. Txosten hau orain argitara ematerakoan urte bete honetan giroa aldatu dela us-te dugu, eta aldatu, hain zuzen, txostenean ageri den bidetik. Orain urte bete, ordea, giroa larriagoa zen. Orain urte beteko giroan ulertu behar da, be-raz, txostenaren mamia.

Honekin ez dugu esan nahi, ordea, igaro den epe honek Euskararen Aholku Batzordeak txosten honetan esandakoak baliogabezten dituenik. Or-duan esandakoak oso-osorik gaur egunerako ere ba-

lio dute. Horregatik argitaratzen dira. Bertan aurkitzen diren oinarrizko gogoetak behin eta berriz gogora ekarri beharrekoak dira, nahiz eta, zenbaite-tan, begien bistakoak izan.

Ez dezala inork jakintza sakoneko azterketarik espero. Ez da hori Euskararen Aholku Batzordearen eginkizuna. Txosten honetan esaten denaren balioa ez da beraz, bide honetatik bilatu behar. Hizkuntz politika mailan daude esanda hemen esaten direnak. Eta alor honetan ere Euskararen. Aholku Batzordeak ez du uste ezer berririk aurkitu duenik. Bainan bai euskara munduan askotan nagusitzen den nahaspilan esan beharreko zenbait baieztapen.

Esan beharra dago, txostenean bertan egiten den bezala, gogoeta eta irizpide hauek ez datozela hizkuntz politika mailako ekintzen orde, ez aurretik; horien lagungarri baizik. Euskararen Aholku Batzordeak dioena Eusko Jaurlaritzak lehendik zerman hizkuntz politikaren osagarri da: ekintzak berak sortutako gogoeta beharrari erantzuna, ekintzen esperientziak erakutsitakoaz jabetuz. Gogoeta eta irizpide hauek, beraz, hizkuntz politika arloko ekintzetan itsatsirik daude.

Azkena esandakoak adierazten duen bezala, Euskararen Aholku Batzordearen lana ez da mugatu, ez txosten hau lantzerakoan, ez gerokoan, gogoeta eta irizpide hauek finkatzera. Honetarako eta horrekin batera hizkuntz politika alorreko ekintzak eta programak ezagutu, baloratu eta, bere irritza emanaz, bideratu ditu, eta guzi hori egiten jarraitzen du.

Bukatzeko: Euskararen Aholku Batzordeak hemen esandakoak Eusko Jaurlaritzak bere egin ditu eta eguneroko lanean betetzen saiatzen da, nahiz eta zenbait gauza oraindik eginkizun izan.

PEDRO MIGUEL ETXENIQUE LANDIRIBAR

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza  
eta Kultura-Sailburua*

# I

## SARRERA

Bestela izan ez zitekeen bezala, Eusko Jaurlaritzaren borondatea euskarari etorkizunerako bizitza aukerak segurtatzea da, eta honetarako beharrezkoak liratekeen bideak urratzea.

Borondate horretan Eusko Jaurlaritza ez da bakarrik aurkitzen. Bere burua abertzale sentitzen duten eta euskararen maitale diren gainontzeko pertsona eta erakundeekin bat dator. Esan daiteke, beraz, euskarari etorkizuna ahalbideratzeko borondatea herri mailako borondate bilakaturik dagoela, guxtienez herriaren zati haundi baten borondate.

Orainartekoan askotan pentsatu izandu da euskararen etorkizuna, aipatu berria dugun borondate hori oinarritzat hartuz, behar hainako medioak eskuratzetik zintzilik zegoela. Borondatea hor zegoen. Borondate hori burutzeko medioak falta ziren.

Autonomia estatutoa lortu denetik eta beronen bitartez Euskal Herriak aginte maila bat berreskuratua duenetik, lehen borondatea burutu ahal izateko falta ziren medioak ere eskuratu dituelako itxaropena eta ilusioa sortu dira. Eta neurri haundi batetan itxaropen eta ilusio horiek egiazkoak dira, ez dira amets huts.



Hala ta guztiz ere, euskararen etorkizuna segurtatzeko medioak eskuratzearekin batera bururatu zaizkigu zenbait galdera, kezka eta zalantza: Nola definitu behar da helburua zehazki, zein medio dira batez ere erabili beharrekoak, nola errabili behar dira medio horiek, zein dira aldendu beharreko arrisku nagusiak eta abar.

Eta ez da batere harritzeko honelako galderak, zalantzak eta kezkak sortzea. Gertakizun hau ez da borondate faltaren seinale. Horrelakorik lehen gertatzen ez bazen galdera, kezka eta zalantzen iturburu diren medioen faltaz zen, ez beste ezeregatik. Dirua zertarako eta nola erabili, zentzuz, dirurik dagoenean bakarrik galde daiteke.

Egoera honetan eta orain aipatutako borondate, medio eta zalantzek markatutako giroan eraikitzen du Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku-Batzordea, gidari izan dakion bere euskararekiko borondatean zein medio, nola eta zein neurritan erabili erabakitzerakoan.

Euskararen Aholku Batzordeak ezin ahaztu zezakeen, beraz, zeri zor dion bere jaiotza: galdera bati, zalantza bati, kezka bati. Hau onartzetik abiatu behar zuen Euskararen Aholku Batzordeak: gauzak nahi hainbat garbi eta ziur eta erabakiak ez zeudela (ez daudela) onartzetik.

Guzi honek Euskararen Aholku Batzordearen eginkizuna neurri haundi batetan baldintzatzen du, hasiera lanari dagokionez behintzat. Eusko Jaurlaritzaren asmoaren interpretazio sikoanalitikoak egiten hasi gabe, Euskararen Batzordea aholkulari izateak, eta ez eragile, ejekutibo, orainarte esandakoari erantzuten dio: hain zuzen ekintzara pasatzeko momentua heldu denean, ekintzaren eta ekintzen benetako

posibilitatea begibistan dagonean da, inoiz baino beharrezkoagoa, ekintzen nondik-norakoa, beraien zergatia, mailaketa etab. behin eta berriz argitzen saiatzea.

Zalantzarik gabe euskarak gaur egun bizi duen egoera larria da. Eta larritasun honek ekintzen premia eta beharra haunditu besterik ez du egiten. Eta euskarari buruzko politikari dagokionez, oker ibiltzeko beldurrik gabe esan daiteke politika hori larritasun honen mendeko politika bihurturik dagoela, ekintzen premiak itxututako politika bihurturik dagoela. Zenbat eta handiago premia, orduan eta beharrezkoagoa norberaren burua premiaren gainetik jartzea, honela premien artean mailaketa bat, jerrakia bat egin ahal izateko, premien larritasunaren barruan helburua begibistatik ez galtzeko.

Norberaren burua premietatik askatzea eta premien larritasunaren gainetik jartzea ez da, inolare, ekintzen beharra ukatzea. Hain zuzen ekintzen beharra eta premia aitortzen direlako bihurtzen da nahitaezko ekintza horiek gidatuko dituen kriteriologia bat finkatzea. Hau da lehendabizi egin beharreko gauza edo argitu beharreko arazoa. Lehentasun hau ez da denborazkoa, logikoa baizik. Gerta daiteke zenbait ekintza abia araztea eta gero kriteriologiari ekitea. Kriteriologia bat erabakitzea, ordea, lehentxoago edo geroxoago, izango da egin-kizunik garrantzitsuena.

Orain arte esandako guziak kontutan hartuaz, Euskararen Aholku Batzorde honek bere buruari, bere aholkulari izaerak behartzen dion bezala, kriteriologia bat finkatzea jarri dio lehen lan bezala, honelako kriteriologia bat lantzeak eta erabakitzeak duen garrantziaz eta ondorio praktikoaz jabeturik.

Badago, ordea, oraindik beste arrazoirik aurrena kriteriologia bat finkatzeko eta Euskararen Aholku Batzordeak, lehen momentu batetan, bere lana honetara mugatzeko: gorago aipatu diren itxaropenak eta ilusioak. Egoera, errealitateak hainbat osatzen dute itxaropenak eta ilusioak.

Eta zalantzarik gabe, Euskal Herrian euskararen egoerari dagokionez, itxaropenak eta ilusioak errealitateak berak hainbat garrantzi dute. Honegatik aztertutako behar dira eta kontutan eduki itxaropen eta ilusio horiek. Bi eratakoak bereiz daitezke: batetik euskararen normalizatzeari buruzkoak, eta horretarako Eusko Jaurlaritzak egin lezakeenari, egin behar lukeenari buruzkoak bestetik.

Ilusio eta itxaropen hauek euskararen egoera eta bere etorkizuna, bai onerako bai txarrerako, determinatzen dutelako, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzak beraiei buruzko jarrera ahalik eta garbien azaltzea. Edozein plangintzak eta edozein ekintza konkretoak baino eragin praktiko haundiagoa izan dezake, epe luzera, arlo honetan Eusko Jaurlaritzak bere jarrera argi ta garbi jakin araziko balu.

Gai honi dagokionez plangintza bat eratzea hainako erantzunkizun zaio Eusko Jaurlaritzari euskararen egoerari buruz bere iritzia azaltzea, egoera dagoenean ikusteko gaitasuna adieraztea, egoera aldatu ahal izateko, hain zuzen. Txosten honen hurrengo puntua gai honi eskaintzen zaio, eta honegatik gerorako uzten da.

Era guzitara, eta gerokoan elebitasun arazoaz esango denarekin lotuaz, plangintza konkreto baten orde, edo bestela nahi bada, euskararekiko plangintza orokorraren lehen urrats bezala, Eusko Jaurlaritzak oinarrizko kriteriologia bat finkatzeak badu

esanahirik: Eusko Jaurlaritzak euskararen egoera nola ikusten duen adierazten du, eta berak arlo honetan egin nahi duena eta dezakeena. Laburki esanaz: Gizarte mailan euskara egoera anormal batetan aurkitzen da; hizkuntza bezala normalizatu gabe dago (ez erabilkerari begiratuz bakarrik); erdi mailako euskaradun gorputz alfabetatu nahiko bat falta da, eta ondorioz behar hainbateko irakurletoa, behar hainbateko ikasletoa falta da, euskara osoki normalizatutako, eta herritar guzientzat ezaguna den hizkuntza indartsu batekin lehiaketan aurkitzen da; beharrezko oinarrizko ikerketak falta dira.

Honelako egoera baten aurrean Eusko Jaurlaritzak ez du uste gauzak gaueatik goizera alda daitezkeenik; ez du uste egoera hobetzea, borondate arazo huts denik; ez du uste irtenbideak behar hainbat garbi daudenik, eta honegatik ez du uste arazoa dirua eta beharrezko tresnak jartzea bakarrik denik; Eusko Jaurlaritzaren iritzian badira zenbait baldintza bere eta beste edozein erakunderen eskuetatik ihes egiten dutenak, eta euskararen etorkizuna, bai onerako, bai txarrerako, asko markatzen dutenak; Eusko Jaurlaritzaren iritzian aktibismoak bakarrik ez du salbatuko euskara; beharrezko ekintzekin batera ekintza hauen nondik-norakoa eta zergatia ahal bezain garbi edukitzeko kriterioei buruzko gogoetak eta azterketak ezinbestekoak izango dira.

Azken batean euskararen egoerari eta Eusko Jaurlaritzak egin dezakeenari eta egin behar lukeenari buruzko usteak eta itxaropenak izango du eraginik haundienetakoa euskararen etorkizunean. Usteak eta itxaropenak errealitateetik zeharo aldentzen badira, hizkuntzaren bizitza itoko dute; bestetik ordea itxaropena ez bada errealitatea baino zerbait gehiago, egoera ez da aldatuko, edo ziurrenik

txarrerako aldatuko da. Patxara ez da premiaren kontrako; gogoeta ez da ekintzaren kontrako; errealismoa ez da itxaropenaren kontrako. Guziz kaltegarri gerta daiteke bete ezineko itxaropenak eta ilusioak saltzea. Era berdinean izan daiteke kaltegarri egoeraren larria ez ezagutu nahi izatea. Eta azkenik: barka ezineko arinkeria litzateke ahaztea euskara, azkenean, euskara erabiltzean dutenek salbatuko dutela, gizarte baten edo eta gizarte hori osatzen duten gizabanakoen erabakia, sikologia, borondatea etab. direla medio.

## II

### ELEBITASUNAREN ARAZOA

Aurreko puntuan esandakoarekin jarraituz euskararen etorkizunerako berebiziko garrantzia du egoera den bezala ikusteak eta itxaropenak eta usteak errealismo baten barruan kokatzek.

Zentzu honetan aztertu eta planteatu beharreko arazorik oinarrizkoena elebitasunaren arazoa da. Elebitasun osoa izanik gizarte guzia bateratzen duen helburua, Eusko Jaurlaritzari dagokio horretara iristeko ahalbide efektiboak eskaintzea.

Arazoa honela planteatuta garbia badirudi ere, gizarte elebidun bat sortzeko dituen zailtasunak argi eta garbi azaldu behar dira, eta gizarteari argi eta garbi jakinarazi behar zaizkio.

Aurrena argitu beharrekoa zera da: gizarte elebidun batez zer ulertzen den. Ez da, noski, Euskararen Aholku Batzordearen asmoa hemen elebitasunez eta diglosiaz eta horrelakoez luze eta sakon ihardutea. Euskararen etorkizuna segurtatzeko horretaz ohar batzu egitea beharrezkoa den neurrian bakarrik helduko zaio gaiari.

Elebitasun osoaren edo osoki elebidun den gizarte baten definizio bezala honako honek balio lezake: bi hizkuntzetan jendetza guzia, maila eta arlo

guzietan, eta pertsona arteko harreman guzietan, inolako diferentziarik gabe baliatzea. Elebitasun osoa litzateke hau.

Badira, ordea, elebitasun oso honen ondoan beste zenbait maila elebitasunean. Elebitasun oso ez den guziari diglosia izena emateko ohitura zabaldurik dago. Zenbait bereizketa egitea, ordea, beharrezkoa izango da.

Bigarren mailako elebitasun bat izan daiteke gizarte batean talde batek nagusiki hizkuntza bat, eta beste batek beste bat erabiltzen dutenean, baina kasu bakoitzean talde bakoitza gai da bestearen hizkuntza entzutez eta irakurtzez ulertzeko. Elebitasun pasiboa izango litzateke hau.

Hirugarren mailako egoera elebidun batek zera suposatuko luke: gizarte batean bizi den jendetza guzia gai da hizkuntza bat eta berdinean baliatzeko, arlo eta maila guzietan. Batzuk beste bigarren hizkuntza bat, maila batzutan ulertzen dute; beste batzu berriz gai dira bigarren hizkuntza honetaz maila eta arlo batzutan baliatzeko; eta azkenik beste batzu bigarren hizkuntza hau aktiboki erabiltzen dute maila eta arlo guzietan. Elebitasun diglosikoa izango litzateke hau.

Eta azkenik, laugarren egoera elebidun bat ere eman daiteke: gizarteko jendetzaren parte batek hizkuntza bakarra erabiltzen du, bestea pasiboki ere ulertu gabe; jendetzaren beste parte batek bigarren hizkuntza hau bakarrik erabiltzen du, aurrenekoa ulertu ere egin gabe. Azken hau elebitasun faltsoa da, jendetza elebakar bi dituen gizartea.

Lau posibilitate hauek begibistan izanaz, esan daiteke gure gizartearen egoera batez ere hirugarren posibilitatean konkretatzen dela; erdaraz jendetza

osoa manejatzen da; zenbait herritar gai da pasiboki euskara ulertzeko; eta beste zenbait gai da bi hizkuntzetan, pasiboki eta aktiboki, iharduteko.

Gizarte osoari ez baina jende multzo ezberdinei begiraturaz, aurreneko hiru tipoak ematen dira gure artean. Laugarren posibilitatea erdara bakarrik dakitentan ematen da. Baina ez dago gaur egun erdararik ez dakien euskaldunik, ezta gerokoan egongo ere.

Kontuan hartu behar da lurralde historikoei begira gauzak asko zehaztu beharko liratekeela. Lurralde Historiko bakoitzean elebitasun egoera bat izango da nagusi eta honi erantzun beharko zaio bereziki.

Euskal Herrian nagusiki erabiltzen den elebitasun kontzeptoa hemen aipatutakoetatik aurrenekoa bada, elebitasun osoarena alegia, esan beharra dago European eta munduan honelako gizarte elebidunik ez dagoela. Beste era bateko elebitasun egoera baten aurkitzen diren gizarteak anitz badira ere, kasu guzietan, edo gehienetan behintzat, hizkuntza bat gizarte horretako jende talde batentzat egoera diglosikoan egongo da. Gerta daitekeena, eta gertatzen dena, zera da: inolako hizkuntz zapalketarik ez dagoen eta egon ez den gizarteetan ez dela beti hizkuntza berdina izaten egoera diglosikoan aurkitzen dena. Talde batzutan bata izango da, besteetan bestea. Baina komeni da honako hau ondo gogoan hartzea: inolako hizkuntz zapalketarik izan ez duten herrietan ere ez da elebitasun osorik lortu (agian lortu nahi izan ere ez). Euskal Herrian lortu nahi litzatekeen helburua ezartzerakoan ez litzateke dato hori ahaztu behar.



Egoera diglosikoa ezagutu eta onartzetik abiatu behar da. Ez dira egoera diglosiko guziak berdinak. Diglosia radikalizatu batek hizkuntzaren etorkizuna arriskuan jar lezakeen bezala, badira hizkuntzaren etorkizunerako hain gaitzezkoak ez diren egoera diglosikoak. Hain zuzen helburu bezala lehenbaitlehen egoera diglosikoa osoki gaintitu nahia izan daiteke hizkuntzaren etorkizunerako diglosia radikala bezain arriskutsu.

Guzti honegatik beste hau ere esan daiteke eta esan behar da: elebitasun osoa baino helburu razionalagoa da diglosia ezari-ezarian reduzitzen joatea. Honetarako beharrezkoa izango da aztertzea zein arlo eta gaitan den garrantzizkoa aurrena diglosia gaintitzea.

Elebitasun prozesoreen bideratzea nola eta zeren bitartez lor daitekeen ez dago garbi:

- Badirudi benetako elebitasuna famili mailan eta betidaniko famili giroan bakarrik dela posible.
- Irakaskuntza bitartez bakarrik oso zaila da elebitasun osora iristea.
- Elebitasun bidean ezer lortu nahi bada beharrezkoa izango da gizarte giroa familia elebidunaren antzeko bihurtzea.

Gizarte elebidun bat lortzeari buruz hitzegiten duten azterketa eta plangintza gehienek Euskal Herrian dagoen arazo bat ez dute kontuan hartzen: euskara ez dagoela Euskal Herrian bakarrik egoera diglosiko batean italiera Adigio Goienean egon daitekeen bezala, baizik eta euskarak egoera diglosikoa bakarrik ezagutzen duela. Eta horretaz gainera,

arazoa ez dela erabilkeraren normalizazioa bakarrik, hizkuntza beraren normatibatzea ere baizik.

Azkenik, elebitasun arazo honi buruz hitzegiten denean gauzak argi eta garbi esan behar lirateke: zein den lortu nahi den helburua, eta hau lortzeko zein pauso eman nahi diren. Ez da gauza berdina elebitasun osoa lortu nahia azken helburu bezala, edo-ta elebitasun osoa, besterik ezean, gaitzerdi bezala ikustea. (Paperean euskararentzat helbururik ederrena dirudiena errealitatean hain ona ez izatea gerta daiteke: gaztelania ere badakien gizarte osoki euskaldun bat.)

Elebitasun osoa izanik Autonomi Elkarteko Estatutoak helburu bezala finkatzen duena, helburu hau berekin dituen muga, eragozpen eta baldintza guzietan onartu behar da: beharrezkoa da helburu hori lortzearen positiboki funtsezko zerbait egitea, abiapuntu askoz ere eskasagoa duen hizkuntzari laguntza bereziak ematea. Hori egiten ez bada, alferrikakoa da elebitasun osoa lortuko dela esatea, engainu bat besterik ez bailitzateke izango.

### III

## EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAK ERABAKI DUEN KRITERIOLOGIA

Puntu honetan aurkezten dena zera da: Euskararen Aholku Batzordeak erabaki duen kriteriologia. Hasieran esan den bezala, Batzorde honek bere buruari ezarri zion lehenengo lana hauxe izan zen. Kriteriologia honek esan nahi duena hau da: hemen aipatzen diren kriterioak erabili behar lituzkeela Eusko Jaurlaritzak Euskarari buruzko edozein ekin-tza erabakitzerakoan, lehentasunak erabakitzerakoan, zer egin eta zer egin gabe utzi erabakitzerakoan.

Kriterio hauek batzutan nahiko orokorrak dira, besteetan berriz, nahiko konkretoak eta zehatzak. Aurrena orokorrenak aurkezten dira, Jaurlaritzaren Sail guzietara aplikatu daitezkeenak. Ondorenean Sail bakoitzari legozkiokeenak eta hirugarrenez aurrekoen sistematizazio txiki bat egiten da.

#### I) KRITERIO OROKORRAK

Lehentasuna Euskara nagusi den tokiei, hizkuntzarentzat eta bere bizirako ezinbestekoak diren arloei eta euskara erabilgarri bat posible egiten duten medioei eta lanei eman behar zaie.

Aukera honen oinarrian legokeen argumentazioa hau litzateke: hizkuntza batek etorkizunik izan lezake gizarte bizitza arrunt eta normalean ohizko bihurtzen bada, gizarte bizitza honen giroa, etorkizun segurantzarik gabe dagoen hizkuntza euskara bada, euskalduntzen denean. Gizarte bizitza euskaldundu ahal izateko honako elementu hauek eduki behar dira gogoan:

—Hizkuntza, batez ere, giza esperientzia arruntei dagokienetan lantzea.

—Gizarte bizitza arrunt honetako gai eta arazo nagusienak euskaraz «okupatu» beharra.

—Honelako hizkuntza baterako garrantzizkoak diren pertsonak eta pertsonaiak euskalduntzea.

—Gizarte bizitza arrunteko giroa ez da euskaldunduko euskara hizkuntza erabilgarri bat ez bada bihurtzen.

—Bizitza arrunteko giroa euskalduntzeko eta euskalduntasunean sendotzeko beharrezkoa da beste zenbait «izeneko» edo «izen haundiko» arlo ere euskalduntzea, baina beti laguntza bezala eta ez eginkizunik nagusiena bezala.

—Helburu horiek lortzeko irakaskuntza ez da nahikoa izango. Nahitaezko baldintza da, baina ez nahikoa. Irakaskuntzan bertan lehen aipatutako kriterioak gogoan hartu beharko dira. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eragina gizarte bizitza arrunta eta normala euskalduntzeko gertutik kontrolatu behar da.

—Irakaskuntzak hainbateko garrantzia izango dute gizarte komunikabideek. Hauen artean irratia eta telebista dira eragingarrienak. Hauetan euskara zein mailatan sartu behar den erabakitzeko, lehen aipatutako kriterioak erabili behar dira: hizkuntzaren bizitzarako ezinbestekoak diren arloak oku-

patu; hizkuntzaren transmisiorako giltzarri diren pertsonak eta pertsonaiak euskaldundu; euskararen erabilgarritasuna azaldu.

—Administrazioari dagokionez ere kriterio berdinak eduki beharko lirateke kontuan: euskaraz hitzegiten duen jende normalarentzako garrantzizkoak diren gai, toki eta pertsonak lehenik euskaldundu: telefonista, jendearekin harremanetan egon behar dutenak, publiko normalari zuzendutako agiri, txosten, iragarkiak etab. Guzi hauetan «uler moduko» euskara bat erabili behar da. Hizkuntza normalarentzat eta jendetza normalaren giroan hain garrantzizkoak gerta ez daitezkeen arloetan ere poliki-poliki lan egin behar da, giroa babes-teko. Horretaz gainera arlo honetan besteetan bezala, hizkuntzari ohorea eta omena eman diezazkioketen arloak euskaraz okupatzea beharrezkoa da. Berdin pertsoneri buruz (adibidez: giro normala euskalduntzeko garrantzi haundikoa da Lehendakariak euskaraz hitzegitea, eta telebistako pertsonaia eza-gunak euskaraz ihardutea).

## II) SAIL BAKOITZARI DAGOZKION KRITERIOAK

Orain arte aipatutako kriterio orokor hauek Eusko Jaurlaritzako Sail bakoitzera aplikatu behar dira.

### A) HEZKUNTZA

Arlo honi eta bere sail guziei aipatutako kriterioak aplikatzeko lehen ohar bat egin behar da: oso zaila da arlo honetan lehentasunak finkatzea itxaropenezko eskubide batzu iadanik sorturik daudelako, eta legezko obligazio zenbait ere badagoelako. Ohar

hau gogoan izanaz, lehentasunak honela izango lirateke:

a) Hezkuntza lanak euskararekiko fruiturik eman nahi badu, euskaraz iadanik dagoena sendotu behar da lehenik. Indarrak batez ere euskaldun zonetara bildu behar dira. Hain euskaldunak ez diren zonetan, talde euskaldunak sortu behar dira eskoletan, haurrak nahasian egon ez daitezten.

b) Eskola euskaldunak eta ikastolak besterik gabe ugaritzeak baino garrantzi haundiagoa du irakasleak prestatzeak. Hemen gaurko egunean hutsune izugarri bat dago. Irakasleak prestatu behar dira, honetarako beharrezkoak diren medioak ugari, pronto jarriaz. Irakasleak euskaldundu behar dira ez bakarrik zenbait gai tekniko euskaraz erabiltzeko, baizik eguneroko bizitzako gaiak euskaraz, errazki erabiltzeko.

c) Irakaskuntzan Eskolaurrean eta, oro har, O.H.O. mailan egin behar dira ahaleginik nagusienak. Edade hauetan batez ere giza gaiak dira euskaldundu beharrezkoak'.

d) Behin adin batera iritxiz gero, irakaskuntza lanari saihetsetik lagundu beharra dago: irakurgai egokiak, euskaraz mintzatzen diren pertsonaiak, irrati eta telebista; baina hauek ere adin horietako haurren hizkuntzan garrantzizkoak diren arloetan.

e) Ezin ahantz daiteke, batez ere gorengo mailako OHO-ko ikasleetzat garrantzizkoa dela ikustea euren ikasketen jarraipenean euskara posible eta beharrezkoa dela. Horregatik, ez testimonialki bakarrik, baina bai horregatik ere, BBB, LH eta Unibertsitate mailan euskarak eta euskarazko gaiak presente egon behar dute, ahalegin guziak, diruz-

koak, pertsonalak eta materialak, honetan agortu gabe.

f) Lanbide Heziketan, batez ere giza zerbitzuetarako jende prestakuntzarako programei eman behar zaie lehentasuna.

g) Unibertsitate eskoletan, irakasle eskolez beste, gizarte laguntzarako eskolak, Erizain Eskolak eta honelakoak euskaldundu behar dira lehenik.

h) Unibertsitate mailan, batez ere giza zientziei eman behar zaie lehentasuna. Baita ere BBB-rako irakasle prestakuntzan. BBB mailan, orain arte aipatu gabe gelditu denez, batez ere erlijioa edo etika, soinketa, historia eta naturzientzia orokorrak dira euskaldundu beharrekoak, hizkuntza berarekin noski.

i) Ikerketa mailan egin, programatu, eta diru laguntzaz gidatzen den guziak kriterio berdinak izan behar lituzke: gizarte bizitzan eta hizkuntzaren bizitzan eragin haundikoak diren arloetan bultzatu eta subentzionatu ikerketak.

j) Irakaskuntzan, eta batez ere aipatutako arloetan, erabiltzen den hizkuntzari garrantzi handia eman behar zaio: hizkuntza honek ezin gal dezake eguneroko gizarte bizitzan erabiltzen den hizkuntzarekiko lotura. Posible izan behar luke hizkuntza batetik bestera pasatzeak, hauste larririk gabe.

## B) *KULTURA*

Aurreko arloan bezalaxe, aipatutako kriterio orokorrak arlo honetara eta bere sailetara aplikatu behar dira. Kriterio orokor bezala honako hau onartu behar da: irakaskuntzan egiten den euskararen al-

deko lan guziak ezer gutxi balioko du gizarte mailako giroa euskalduntzean eraginik ez badu. Eta alderantziz: gizarte mailako giroa euskalduntzen ez bada, ezin izango da behar bezala lan egin irakas-kuntza munduan.

Irakaskuntzak berak adinbat garrantzi edo gehiago izan dezake kultur lanak hizkuntzaren bizitzarako ezinbestekoak diren arloak eta pertsonaiak euskaraz okupatze garaian. Arlo honi, beraz, Eusko Jaurlaritzak garrantzi haundia eman behar dio.

a) Arlo honen barruan lehenatasuna telebistari eta irratitari eman behar zaie.

b) Telebista eta irradi arloetan izugarritzko garrantzia izango du hizkuntzaren bizitzarako garrantzizkoak diren gaiak sumatzea eta euskalduntze ahaleginak gai horietara zuzentzea.

c) Gauza bera da baliozko hizkuntzaren bizitzarako eragin haundikoak diren pertsona eta pertsonaientzako. Horiek zein diren aztertu behar da, eta euskalduntze lana, batez ere, horietara zuzendu.

d) Telebistan hitzegin eta azalduko diren pertsonak euskalduntzeko, edota egin behar duten lanerako behar bezala antolatzeko eskolak lehenbaitlehen eraiki behar dira, lan hau iadanik eginik ez badago. Jendetza honen prestakuntzarako programa zehatzak antolatu behar dira, programa horietan kriterioak txosten honetan esaten denaren arabera erabakirik egon behar dutelarik.

e) Helduen artean euskaldun giroa lortzeko edo, dagoenean, giro horri eusteko, euskarara itzulaldaturiko filmek garrantzi haundia izango dute telebistan.



f) Telebistan eta irratian erabiltzen den hizkuntzarekin kontuz ibili behar da: arriskutsua gerta daiteke irrati eta telebistako euskara egunero-ko euskaratik urruntzen bada.

g) Aurreko puntuetan esandakoa konkretatuz, gizarte bizitza aurkeztu eta adierazten duten programei eman behar zaie lehentasuna.

h) Bide berdinetik jarraituz, haurrentzako, gaztetxoentzako eta gazteentzako programak dira lehendabizi euskaldundu beharrekoak. Adin horietako neska-mutilentzat garrantzizkoak diren gai eta pertsonaiak euskaldundu behar dira.

i) Euskal Telebista eta Irratiko arduradun nagusia euskara erraz eta joria erabiltzeko gai izatea eskatzea posible ez bada ere, Euskal Telebista eta Irratian euskararen erantzukizuna duen arduradun bat beharrezkoa da, hizkuntz politikaren mailako erabakiak hartzeko eta ezartzeko gai izango dena.

Era berean Parlamentuko Euskal Telebista eta Irratirako Batzordeko Lehendakariak euskalduna, euskara larritasunik gabe erabiltzeko gai dena, behar luke izan.

j) Autonomi Elkartean telebistarako bi katea egotea posible balitz, batak osoki euskalduna, behar luke izan. Hori posible ez balitz, orain arte esandakoak balio du. Egokia litzateke Autonomi Elkartean irrati bat osoki euskalduna izatea. Honek ez du, ordea, esan nahi irrati horretan nahitanahiez programa mota guztiak landu behar direnik hasiera hasieratik.

Egunkarietako posibilitateak oraindik murriztagoak dira: bortxaz eta indarrez, eta iraupenik ez izateko arriskuarekin euskara itzulia sartu gabe, ho-

be da astean behin edo bitan zuzenean euskaraz idatzi eta landutako eraskinak egitea eta hauei laguntzea.

Euskal Telebista, eguneroko bost orduko programatik kanpora, alfabetatze eta euskalduntze lanetarako erabil daiteke. Tresna egokia gerta daiteke telebista aparteko ordu horietan, lan hori egiteko mailen eta eskualdeen berezitasunak kontuan hartuz Kultura eta Hezkuntza Sailak izango dira, Euskararen Aholku Batzordearen kriterioak jarraituz, zer eta nola egin behar den erabakiko dutenak.

k) Liburu politikari dagokionez, berriz, kriterio hauek dira erabili beharrekoak:

—Kreazio lanak bultzatu, batez ere kontu liburuak.

—Entseiu eta dibulgazio lanak espezializazio lanak baino beharrezkoagoak dira.

—Landu beharreko arloak, batez ere, giza zientzitatekoak dira.

—Iadanik dauden editorialei lagundu behar zaie lehenik diruz, diru laguntza hauek «lotuak» direlarik.

—Zuzenean testu liburu direnak baino beharrezkoagoak dira testuak tratatzen dituzten gaien buruzko monografiak, entseiuak etab. Unibertsitate mailan.

l) Helduen heziketari dagokionez, euskaldun zaharrak dira aurrera alfabetatu beharrekoak; euskaldun berriak sortzea batez ere ikastaro trinkoen bidez landu behar da; euskara irakasteaz beste, helduen heziketaren posibilitateak ireki behar dira,

zein gai diren garrantzizkoak erabakitzeko lehen aipatutako kriterioak kontuan izanik.

*ll)* Ekintza guzi hauek sendotzeko eta bultzatzeko euskara erabiltzearen aldeko kanpainak montatu beharko dira. Kanpaina hauek denboraz eta ondo pentsaturik egin beharrekoak dira.

### C) *ADMINISTRAZIO ARLOA*

Arlo honetan Hezkuntza eta Kultura ez diren Eusko Jaurlaritzaren gainontzeko Sail guziak sartzen dira:

*a)* Arlo honetan lehentasun garbia publikoarekiko harremanak dituen Administrazio sailak izango luke. Hauek dira aurrena euskaldundu beharrekoak: publikoarekin harremanatan dagoen funtzionariadua eta publiko orokorrari zuzendutako idatziak. Hau, batez ere, nahitaezkoa da euskara nagusi den tokietarako, edo ta toki horietako jendetzarekin harremanetan egon behar dutenentzako.

*b)* Administrazio barruan zerbitzu sozial bezala uler daitezkeen sailak garrantzi haundia izango dute euskararen bizitzarako.

*c)* Euskalduntze lanetan zeri eta nori eman behar zaion lehentasuna erabakitzerakoan jendearekiko hurbiltasuna da, beraz, arrazoia.

*d)* Funtzionariadua euskalduntzeko eman behar diren pausoak:

—Aurrena euskaldun zaharrak alfabetatu.

—Gero erdaldunak euskalduntzen saiatu, eta lehen aipatutako kriterioak jarraituz.

—Lan postuetarako euskara jakin beharrak badu baliorik funtzionariadoa euskalduntzeko.

—Iadanik funtzionario direnentzako euskara jakitea eta erabiltzea diruz eta igoera posibilitatez edo beste zenbait medioz primatzea bide egokia izan daiteke administrazioan euskal giroa sortzeko.

—Itzal haundiko pertsonak euskalduntzeak ere eragin handia izan dezake: Sailburuak, Sailburuordeak, lurraldeetako Ordezkarriak etab.

—Funtzionarioekin egiten den irakaskuntz lana bere emaitzetan zehazki kontrolatu behar da.

e) Oñatiko Administrazioarako Euskal Institutoan egiten den euskararen plangintzak hemen aipaturako kriterioak jarraitu beharko ditu.

f) Publikoarekin harremanak dituen administrazio-bulego guzietan jendea euskaraz atenditzeko gai den norbaitek egon behar luke.

g) Administrazio mailan erabiltzen den hizkuntza bereziak, tekniko juridikoak, problema bereziak ditu. Ez dago problema hau «a priori» erabakitzerik.

Era askotako ahaleginak eta probak egin beharko dira maila horretan hizkuntza finkatu arte. Baina administrazioko hizkuntza ez da hizkuntza espezializatu horretara mugatzen.

h) Itzultzaileei dagokienez, ez dute euskalduntze lana alferrikako egiten duten zerbait izan behar. Itzultzaileek ez dute hizkuntza berezi, pribilegiatu baten jabe bihurtu behar. Itzultzaile espezializatuak zerbait probisorio bezala kontsideratu behar dira. Itzultzaileetan eta itzultzaile arazoan ez da indar eta ahalegin gehiegirik galdu behar.

### III) LEHENTASUN HAUEN SISTEMATIZAZIO BAT

#### A) IRAKASKUNTZA MUNDUA

a) Garrantzi izugarria izango du irakasleen formazioak. Honetarako:

—Euskararen programaziorako, euskarazko irakaskuntzarako diru laguntzak eman behar dira, euskara irakasleek talde nahiko txikiekin lan egin dezaten. Euskara irakasleen gaitasuna ondo kontrolatu behar da hontarako. Irakasle Eskoletako irakasleei, beren gaiak euskaraz emateko gai izan daitezten, diru laguntza eman behar zaie. Beraiei edo eskolei. Honetan ere gaitasun minimo nahiko latza ezarri behar da kondizio bezala. Baldintza hori mintzatzeko erraztasun aldetik ikusi eta kontsideratu behar da. Esandakoak, egokiak diren neurrian, berdin balio dute Euskal Filologia Fakultateetarako.

b) Bigarrenez, iadanik lanean ari diren irakasleak euskaldundu behar dira:

—Lehenik euskaldun zonetakoak.

—Batez ere, aurreneko momentu batean, OHOko irakasleak dira euskaldundu beharrekoak. Maila honetan edozein gaitako irakasleren euskalduntzeak garrantzi berdina du.

—Irakasleak euskalduntzeko lanean eskola pribatuetakoa irakasleak ere kontuan eduki behar dira.

—Irakasleen euskalduntze eta alfabetatze lanean Kultura Sailak antolatzen dituen HABE erakundearen eskaintzak aprobetxatu behar lirateke.

—Irakasleen euskalduntze eta alfabetatze lanaren fruituak ondo neurtu eta kontrolatu behar dira.

—Ikastoletan euskaraz irakasten duten irakasleen gaitasuna ere kontrolatu beharko litzateke.

—Hezkuntza Sailak bide egoki eta posibleak aurkitu beharko ditu irakasleen euskalduntzea eta alfabetatzea borondatekoi huts gerta ez dadin. Zuzenean behartzea desegokia gerta badaiteke ere, nolabaiteko presioaren bat beharrezkoa izango da.

—BBB mailako irakasleen arloan: lehenik euskaldun zonetakoak eta euskaldun zaharrak alfabetatu behar dira, eta hain zuzen ondoren datozen gaien irakasleak: erlijioa, etika, historia, soinketa, naturzientzia orokorrak, hizkuntza.

—Bide egokiak eta eraginkorrak aurkitu beharko ditu Hezkuntza Sailak irakasle euskaldunak euskaldun zonetara bidaltzeko, edo behintzat euskaldun zonetan irakasle euskaldunik falta ez dadin.

—Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Sailaren bitartez euskarazko irakaskuntza erregulatzeko araudi ahalik eta zehatzena landuko du. Araudi honen helburua zera finkatzea izango da: euskaraz irakastea noiz, zein adinetan, zein hurrekin den posible; murgiltze edo inmersio metodoa noiz, nola eta zein baldintzetan erabil daitekeen.

Araudi hori betetzen den ala ez kontrolatzeko bide egokiak jarriko ditu Hezkuntza Sailak, eta araudi hori betetzeari loturik egongo dira eskola mota guzietakoek jaso ditzaketen diru laguntza be-zeziak eta euskalduntze laguntzak.

Arlo honetan behin betiko erabakitako metodologiari ez badago ere, eta horregatik experimentazioa beharrezkoa izango bada ere, bide berriak urratzen joate hori muga batzuren barruan bakarrik

izango da posible, eta kontrol hertsia batez lagundua.

c) Irakaskuntzan erabiliko diren textuekin kontu haundia eduki behar da:

—Hizkuntzak zuzena eta zehatza beharko du izan, baina normala.

—Hezkuntza Sailak textugintzarako talde diferenteak diruz lagundu behar lituzke, elkarren arteko lehia egon dadin.

—Arlo honetan inbertsio haundia egin beharko litzateke: texto eta irakurgaiak prestatzen. (Agian euskarazko ikerketa arloko zenbait diru honetarako beharko litzateke).

d) Laugarren garrantzi haundiko puntu bat: irakaskuntzarako landu diren eredu diferenteak. Ohar zenbait:

—Pentsatu beharrekoa da, eta ondo pentsatu beharrekoa, eredu aukera zenbaitearaino gurasoen eta irakasleen borondatezko aukera hutsean utzi behar den, edo Hezkuntza Sailak ereduak aukera programatu egin behar duen.

—Irakaskuntzan dauden programa edo eredu diferenteak, batez ere B eta D ereduak, laguntza haundia beharko dute: Kultura Saitetik, irrati ete telebista programazio egokiz, eta gurasoentzako euskalduntze eta alfabetatze aukera egokiak eskainiz. Agian gehiegikeria dirudien proposamen bat: haur bat zein eskoletara, zein eredutara bidali, kondizionatu gurasoen euskalduntze edo alfabetatze minimo batera.

—Eskolaurrean, hasiera eta erdiko zikloan euskalkiak, nagusiki bizkaiera «batua», errespetatu behar dira.

—Hezkuntza Sailan ikerketa arloan ematen diren diru laguntzak euskara indartzeko nola erabil daitezkeen aztertu behar da: ez bakarrik azterketa linguistiko hutsak, aplikatuak ere bai. Eta beste arloetan giza zientzietako ikerketak ez daitezela Natur Zientzietatik urrun gelditu.

## B) *KULTUR MUNDUA*

a) Irratiak eta, batez ere, Telebistak izango dute garrantzi izugarria. Nagusiki kontuan hartu beharreko puntuak:

—Hizkuntzarentzat, pertsona bakoitzak bere bizitza adierazteko beharrezkoa duen hizkuntzarentzat funtsezkoak diren gai, arlo eta pertsonaiak dira lehendabizi euskaldundu beharrekoak: kirola, lana, dirua, bizitza (egunerokoa) adierazten duten erreportaiak... zineko, politikako, kulturako pertsonaiak etab.

—Irrati eta telebistako euskal programetarako irakaskuntza munduari buruz esandakotatik bi kriterio edo baldintza garrantzitsu sortzen dira:

- Irakaskuntza arlotik euskalduntze lana euskaldun zonetan zentratzen bada, irradi eta telebistatik programa bereziak antolatu behar dira ahalegin horiek sendotzeko.
- Euskalduntze eta alfabetatze lanen maila diferenteak eduki beharko dituzte kontuan telebistako eta irrati-tako programak.



b) HABE-ri dagokionez hiru gauza:

—Lehentasunak alfabetatzetik euskalduntzerakoa behar luke, eta ahal dela eskualdeen euskalduntasuna gogoan izanaz.

—Euskaltegien bidez egiten den lanak, irakaskuntza eta irrati-telebisten bitartez euskaldun eskualdeetan egiten dena sendotu beharko luke. Hiru instrumentu hauek koordinatuta erabili beharko lirateke.

—Era berdinean, iadanik lanean hari den irakasleoa alfabetatzeko eta euskalduntzeko, oraindik sortu gabe badaude, erakunde paraleloak sortu beharrean, HABE-ren erakundeez baliatu beharko litzateke, posible den neurrian.

c) Kultur Saileko gainontzeko instrumentoak:

—Nagusiki erdaraz idazten diren egunkarietan alferrikakoa da euskara erdararekiko kompetentzia zuzenean jartzea. Helburua ezin izan daiteke gauzak erdaratik euskarara itzultzea. Euskaraz argitaratzen denak jatorriz euskaraz landutakoa izan behar du. Zer landu behar den euskaraz? Hizkuntzarentzat funtsezkoak diren gai eta pertsonaiak. Ez iadanik hizkuntza finkatu bat galdatzen duten gaiak: berri politiko zehatzak etab, gai eta berri zabalagoak, eta hizkuntza lantzea posible egiten duten epeaz.

—Euskaraz argitaratzen diren aldizkarietara ematen zaien diru laguntzak lotua izan behar du: irakurle sail berriak lortzea posible egiten duten hizkuntza bat erabiltzeari. Laguntza honek irakaskuntzako, irrati-telebistako, HABE-ko mailaketa ere kontuan

izan beharko du: euskalduntze eta alfabetatze maila diferenteak.

—Liburu politika: ematen den diru laguntzak kriterio eta baldintza hauek izan beharko ditu go-  
goan:

- Zenbait adinetako neska-mutilentzat beharrezkoak diren irakurgai egokiak.
- Textugintza: arlo honetan beharrezkoa den aberastasuna egon dadin, textugintza minimo bat jar daiteke diru laguntzaren baldintza bezala.
- Diru laguntza razionalizatu egin behar da eta lortu nahi diren helburu batzutara lotu. Agian liburu sueltoei baino gehiago lagundu behar zaie programei. Beharrezko zabalkundea lortzeko hizkuntza mota erabiltzen duten liburuei.

—Argitaratu ezean gelditu daitezkeen eta euskararen etorkizunerako baliotsuak izan daitezkeen liburuentzat Eusko Jaurlaritzak argitarabideak jarri behar ditu.

### III) ADMINISTRAZIO MUNDUA

—Kanpotik barrura lan egin behar da arlo honetan jendearekin harremanetan egon behar duten funtzionarioekin hasi behar da lanean.

—Aurrena euskaldun zaharrak alfabetatu behar dira.

—Aurrena gizarte zerbitzu bulegoetakoak alfabetatu eta euskaldundu behar dira.

—Aurrena euskaldun zonetan egin behar da ahalegin hori.

—Jendearekin harremanetan egon behar duen edozein Administrazio Publikoko bulegotan egon behar luke euskaraz lan egiteko gai den pertsonaren bat.

—Aurrena, aipatutako maila honetako kizkuntza landu behar da.

—Jaurlaritzako Sail bakoitzean plan zehatz bat egin beharko litzateke —ondoenik HABE-rekin harremanetan— funtzionariadoa euskalduntzeko. Bide honetan egiten den lanaren eragina zehazki kontrolatu behar da.

—Administrazioaren euskalduntzearen azken ardura Oñatiko Administrazioarako Euskal Institutotik erantzukizuna duenak izan beharko luke. Gainontzean ikus Saitetako informeen balorazioan administrazio munduari buruz esaten dena.

## IV IKERLANAK

Orainartean esandako guziak ikerlanak ezinbesteko ondorio bezala eskatzen ditu. Ikerlanen beharra hiru arrazoi nagusitan oinarritzen da: batekik eta hizkuntzari, euskarari, dagokionez egoera zein den behar hainbat eta behar den sakontasunean ez da ezagutzen. Zenbait dato kuantitatibo bai. Euskararen atzerakadaren zenbait interpretazio historiko ere bai. Baina egoera bere zabaleroan, bere kualitatean, bere zehaztasun eta mailen ezberdintasunean ez da ezagutzen.

Bestetik hizkuntza bat, bere garapena, bere bilakaera, bere erabilkera normalizatua edo diglosikoa, maila sikosozial bateko prozesu eta gertakizun bat da. Eta gertakizun horri dagokionez, berriz ere zenbait gauza ezagun da, baina beste zenbait ez. Eta agian maila sikosozialeko prozesu horiek ez dira askotan uste den bezain mekanikoki gertatzen.

Hirugarren arrazoia, berriz, aurrekoaren ondorio da: Euskararen Aholku Batzordeak proposa ditzakeen eta Eusko Jaurlaritzak jadanik egiten dituen eta gerokoan egin ditzakeen ekintzen ondorioak zeintzu izango diren aldeztu aurretik erabakitzerik ez dagoelako, beharrezkoa da ekintza guzi horiek bere ondorioetan zehazki kontrolatzea.

Ikerlanen beharra arrosoitzea zailtasun berezirik gabeko lana gertatzen bada ere, ikerlanen nondik norakoa finkatzea zailagoa gerta daiteke.

Beharrezkoak diren ikerlan horiek fruitu egokiak ematea nahi bada, beroien kriterioak zeintzu izan behar duten garrantzirik haundienekoa izango da.

Ikerlanak egin arazi aurretik ondo aztertu behar da zer den jakin nahi dena, nora iritxi nahi den, ikerlanei zein motatako informazioa eskatzen zaien. Hau egiten ez bada ikerlana alferlan bihur daiteke.

Lau arlo edo maila nagusitan dago ikerlanen birtatez informazioa jasotze beharra: lehenengoz, gaur egungo egoerari dagokionez, bigarren, hizkuntzaren gertakizun sikosozialari buruz; hirugarren, hizkuntzan eta hizkuntzaren erabilkeran behin-behineko eragina izan dezaketen medioak: komunikabideak eta irakaskuntza; eta, laugarren, hizkuntza berari dagokiona.

Arlo eta maila bakoitzaren esanahia, zehaztuaz, hau da: beharrezkoa da, euskararekiko ekintzen koordinazio egoki bat egin ahal izateko euskararen eta euskara erabiltzen dutenen egoera, ahalik eta zehaztasun gehienekin ezagutzea. Baina euskararekiko politikaren helburua euskararen erabilkera normalizatzea bada, eta ez euskararen ezaguera zabaltzea bakarrik, orduan ez da nahikoa izango zenbat euskaldun dagoen galdetzea, zenbatek euskara ulertu, mintzatu, idatzi egiten duen galdetzea baizik.

Lehenengo arlo honetan aurkitu nahi den informazioa zera da: zenbatek noiz, norekin, non, zein gairi buruz hitzegiten du euskaraz? Galdera hauei erantzuten saiatuaz mapa soziolinguistikoko bat eskuratzea posible izango litzateke, mapa kualitatiboko bat, eta ez kuantitatiboko hutsa.

Bigarren arloan, berriz, erantzun beharreko galderak hauek lirateke: zeintzuk dira euskararen etorkizuna segurtatzeko nahitaez euskaraz «okupatu» beharreko gaiak eta arloak? Zein dira hizkuntza baten erabilkerako lagungarri edo oztopo izan daitezkeen mekanismo sikosozialak?

Gerta daiteke iadanik beste hizkuntzetan eta beste hizkuntzetarako horrelako ikerketak eginik egotea. Kasu honetan ikerketa horiek ezagutu eta Euskal Herriko egoerara aplikatu beharko lirateke.

Hizkuntzaren egoeran, bere erabilkeraren egoeran eta bai bata bai bestea eragiten duten mekanismo sikosozialetan komunikabideak eta irakaskuntzak eragin izugarria dute. Komunikabideen eta irakaskuntzaren hizkuntza mailako eragina zehazki aztertu beharra dago. Euskararen etorkizuna segurtatzeko itxaropenik haundiena irakaskuntzan (lehen ikastoletan eta orain eskola denetan edo gehienetan) eta komunikabideetan (batez ere irratian eta telebistan) jarri izan badira eta orain ere jartzen badira, itxaropen horiek betetzen diren ala ez, eta nola eta zein kasutan jakin beharra dago.

Eragin hau neurtu ahal izateko ezinbestekoa da neurketa zein xederi begira egiten den erabakirik egotea. Irakaskuntzaren eta komunikabideen eragina giroaren euskalduntzean zenbaiterainokoa den jakin nahi bada, erabaki beharko da noiz joko den giroa euskaldun bezala, eta horretarako bidean ematen diren urratsak neurtzeko parametroak finkatu beharko dira.

Lan hauetarako gogoan hartu beharko dira bigarren arloan landutakoak: zein diren hizkuntzaren bizitzarako ezinbestean euskaldundu beharreko arloak eta gaiak.

Ikerlan hauek behar den informaziorik eman dezaten, bi baldintza bete beharko dira: irakaskuntzaren eta komunikabideen eragina neurtzerakoan parte har dezaketen bariabile eraginkor guziak eduki behar direla gogoan, batetik, eta bestetik ikerlan hauek ez dutela balio haundirik izango epe luzeetan jarraipenik ez badute.

Eta azkenik hizkuntzak berak, euskarak, izan beharko du zenbait ikerlanen gai. Eusko Jaurlaritzaren beharretatik begiraturaz, ikerlan hauek ez dira, nagusiki, linguistikoak izango. Arlo edo maila honetan aztertu beharrakoa zera da: zein hizkuntza mota den (sortzen doazen hizkuntza kultoetatik) giroa euskalduntze lanetan egokiena. Hizkuntz tipoak, hizkuntz estiloak edo hizkuntz eskolak finkatu beharko dira honetarako. Zein komunikabideak zein hizkuntza-tipo zein programaten erabiltzen duen ere kontuan hartu beharko da.

Ikerlan hauen helburuetako bat etorkizuna berea izango duen euskara garaiz somatzen joatea izango litzateke, eta honekin batera Euskaren Aholku Batzordeak bere kriteriologian aipatzen duen hizkuntza «arrunta» zein den finkatu ahal izatea. Ikerlan honetan maiztasunak aurkitzea izango da lanik inportanteenetako bat, bai lexikalak, bai aditz formenak, bai perpaus egiturenak. Lan honetarako ez da nahikoa izango komunikabideetan erabiltzen den hizkuntza aztertea. Honetaz gainera gizarteko eguneroko bizitzan erabiltzen den hizkuntza ere aztertu beharko da.

Planteamendu honen ondorioz ikerlan ugari egin beharko da. Ikerlan hauen konkretatzea, zein ikerlan noiz egin behar litzatekeen alegia, Euskararen Aholku-Batzordeak honetarako izendatuko duen batzorde berezi batek hartuko du bere gain.

Era guzitara, eta aipaturiko batzorde horren sorreraren zain egon gabe, badira dagoeneko erabaki daitezkeen ikerlanak:

- Mapa soziolinguistikoa, ez zenbait den euskararen jabe, baizik eta euskara non, noiz, nola, zein harremanetan, zein gairi buruz etab. erabiltzen den jakiteko.
- Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Sailaren bitartez eskoletarako ezarri dituen hiru eredu enragina neurtzeko ikerketak iadanik martxan jarri behar dira. Eredu diferenteen eragina neurtzeko oso beharrezko izango da bariabie guziak kontutan hartzea.
- Hizkuntza arrunta definitzen hasteko ikerlanak.
  - \* komunikabideetako maiztasunak.
  - \* eskualde ezberdinetako eta adineko pertsona euskaldunen lexikoaren bilketa.

Ikerlan hauek burutu ahal izateko beharrezkoa da ikerketa proiektuak areago zehaztea. Lan hau aipatutako Batzorde bereziaren eskutan geldituko da. Batzorde hori izango da, era berdinean, ikerlana bere bilakaeran kontrolatuko duena. Batzorde berezi honek Euskararen Aholku Batzordeari emango dizkio kontuak.